

KANALAK

IntegrAkzioak hainbat estrategia erabiliko ditu bere zerbitzua bezeroengana helarazteko eta komunitatearen interesa pizteko:

- **Sare sozialak:** Instagram, Facebook eta TikTok plataformetan eduki erakargarriak eta partekagarriak argitaratuko ditugu. Horrez gain, webgune erabilerraza izango dugu informazio guztia eta izen-emate aukerak eskaintzeko.
- **Tokiko komunikabideak:** Irungo tokiko prentsan, irratan eta aldizkarietan iragarkiak eta artikulua argitaratuko ditugu gure proiektuaren berri emateko.
- **Hezkuntza eta gizarte-erakundeak:** Ikastetxe, unibertsitate eta elkarteekin elkarlanean jardungo dugu, boluntarioak eta parte-hartzaileak erakartzeko, eta kolektibo zaurgarriak inplikatzen.
- **Kale-ekintzak eta komunitate-sareak:** Jarduera irekien bidez komunitatearekin harremanak sortuko ditugu, eta kartelak edo liburuxkak banatuko ditugu tokiko dendetan eta elkarteetan.
- **Ahots bidezko promozioa:** Parte-hartzaileen esperientzia positiboak komunitatean zabaltzea bultzatuko dugu, gure mezua modu organikoan hedatuz.

Estrategia anitz horiei esker, IntegrAkzioa komunitate osoan ezaguna bihurtuko da, eta pertsona guztientzako espazio inklusibo baten balioa azpimarratuko du.